



EGUNKARIAren arima eta bihotza

Euskaltzaleon aspaldiko ametsa errealitate bihurtzeko lanean gidari izan zen

«EGUNKARIA Joxemielek egin du», esan zuen behin Martin Ugaldek. 'Argia-k' emandako sari berezia jaso zuen Ugaldek orduan, eta bere hitzetan EGUNKARIAren sortzailea izan zenari eskaini zion saria: Joxemi Zumalaberi.

I. MURUA / DONOSTIA

Joxemi Zumalabe aspaldi hasi zen euskarazko egunkariaren aldeko lanean, eta horren lekuko dira 1979an 'Zeruko Argia-n' sartu zenetik han eta hemen gai horri buruz argitaratutako iritzi artikulatuak. Makina bat aldiz ere ikusi eta entzun genuen telebista eta irratiaren, egunkaria gizarte ekimenak eraiki eta instituzioek lagundu behar zutela aldarrikatuz.

Aldarrikatuzetik ekintzara pasa zen, ordea, 1989ko udazkenean. Jaurlaritzaren aginduz CIES etxeak egindako azterketak euskal kazetarentzat merkaturatzea zegoela erakutsi zuen, eta egunkaria egiteko benetako aukera ikusi zen orduan.

EGUNKARIA SORTZEN-EN JAIOITZA

Egunkaria Sortzen talde eragile osatu, egunkariaren kazeta eta enpresa proiektuak egin eta kanpainari ekitea izan ziren hurrengo lanak. Talde eragilearen osaketan ardatza izan zen Joxemi Zumalabe: Martin Ugalde idazlea, 'Jakinko' Joan Mari Torrealdai, Elkarreko Joseba Jaka, EHUKo Jesus Mari Zalakain eta abarrekin hurreman zuten orduko Joxemik eta 'Argia-ko' kideek, eta sektore eta pentsakera ezberdinetako jendeak osatutako talde zabala osatzea lortu zen hauen inguruan.

Proiektua bukatuta zegoela, 1990ko maiatzaren ekin zitzaion diru bilketarako kanpainari, eta uztailaren 15ean, EUSKALDUNON EGUNKARIAren ale berezi bat kaleratu eta festa handi batekin ospatu zen orduko segurutzat jotzen zen EGUNKARIAren jaiotza. EGUNKARIA plazaratzeko beharrezkoa zen egitura enpresariala osatzen buru-belarri zegoen orduko Joxemi, baina uztailaren 15eko alea kalera garaiz atera zedin muntaketa lanetan ere ikusi genuen iluntze hartan.


ABENDUAREN SEIAN KALEAN

Uztailaren 15 hartan hasi zen azken txanpa. Kanpainak arrakasta izan zuen, eta 'benetako' lana egiteko garaia zen: produkzio saila, publizitate saila, Administrazio Kontseilua, kazetari taldea eta abar antolatu behar ziren, egunkaria egiteko aretoa lortu behar zen, egitura informatikoa osatu, herrialdeetako ordezkariak, erakundeekiko harremanak bideratu... Jende askok lan handia egin zuen orduan, eta Joxemi Zumalabe izan zen, Administrazio



EGUNKARIAren bozeramaile lana egin izan dute Torrealdai, Ugalde eta Zumalabek.

XOUSE SIMAL



Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria izan da Joxemi.

Ohore bat

EUSKALDUNON EGUNKARIA

EUSKALDUNON EGUNKARIAk bere kontseilari ordezkariaren heriotzakoa zera azaldu nahi luke:

1. Ohore bat izan da guretzat Joxemi Zumalabe lankide eta lagun gisa eduki izana. Asko aberastu gaitu Joxemik lankide, lagun eta pertsona gisa. Harengandik ikasiak ditugu proiektuarekiko ilusioa, helburuarekiko leialtasuna, bitartekoekiko malgutasuna, herri-ekimenekiko atxikimendua, euskaltzale guztiekiko irekitasuna.
2. EUSKALDUNON EGUNKARIAren bi urteko bizialdi honetan Joxemi Zumalabek barruan zuen guztia eman du EGUNKARIAren alde, hiltzeraino eman ere. Pozarren aitortzen dugu bera izan dela hasieratik gaurdaino egunkari honen buru eta bihotz.

Joxemiri zor dio EGUNKARIAk gaur egun enpresarialki eta kulturalki ongi diseinatu, oinarritua eta finkatua egotea.

3. Joxemi Zumalabek gurekin segituko du EGUNKARIA aurrerantzean ere. Ez bakarrik bere izpirituak. Bere lantaldeak ere bai. Lantalde honek Joxemirekin batera ikasi du egunkaria zer den, eta ongi dakigu zernolako egunkaria nahi zuen berak: euskaltzalea eta independentea, baterakoia eta zabala. Errealitate bihurtutako asmo eder horri eutsiko diogu eta aurrera jarraituko dugu EGUNKARIA euskaldunon egunkaria bilakarakiz.

Kontseiluko kontseilari ordezkari gisa, lan guztien gidari.

EGUNKARIAren lehenengo alea abenduaren 6an kaleratzeko helburua jarri zen, baina data hori hurbiltzen ari zen neurrian, eta arazoak pilatzen ari zirela ikusita, egunkari barruan inork gutxi uste zuen helburua beteko zenik. Baina Joxemik egoskor eutsi zion apustuari, eta EGUNKARIA kioskoetan zegoen, agindu bezala, abenduaren 6ko goizean. Erredakzioan andamioak ikus zitezkeen, hormak pintatzeke zeuden, eta astebete pasa arte tala-droaren zarata ez zen isildu, baina berdin zion, harrigarria bazen ere EGUNKARIA kalean zegoen.

«ARREGIEN DIMISIOA HELBURU»

EGUNKARIA kaleratu ondoren ere pertsona klabea izan zen Joxemi Zumalabe. Publizitate saila, erredakzioa, produkzio taldea eta Administrazio Kontseiluaren arteko zubia izan zen, eta erakundeekiko harremanetan bera, Martin Ugalde eta Torrealdai ibili ziren.

Joseba Arregi Jaurlaritzako Kultura sailburuarekin makina bat aldiz bildu ziren Ugalde, Torrealdai eta Zumalabe. Bilera horiek, ordea, ez zuten fruiturik eman, eta Joxemik ondorio bat atera zuen: Arregik dimititzen ez zuen artean ez zegoela zer eginik.

Azkenaldian, gaixotasuna zela eta EGUNKARIAren zuen ardura utzita, gai horri buruzko artikulua luzea prestatzen ari zen: 'Arregiren dimisioa euskaltzaleen elkar-kidetzaren helburu' zen bukatu gabe utzi zuen artikulua izenburua.

EGUNKARIAren sorrerari buruz liburua idazteko asmoa ere bazuen, eta zenbait apunte idatziak zituen horren gainean.

IDATZI eta ESANAK

Joseba Arregik ahaztu egin ditu konfluentziarako eta elkar hizketarako behin eta berriz egin dizkiogun deiak. Gainera produktua definitzeko orduan produktu alternatibo batera zuzendu dute beren ekimena eta gai gehienetan joan dira EGUNKARIAtik urruntzen.


Egunkaria, 1991-VI-22

Kezkagarria deritzogu, euskara eta euskal prentsaren normalizaziorako hain garrantzitsua den EGUNKARIA, Eusko Jaurlaritzak behar bezalako harrerarik ez egina izateari orain artean. Liburu eta aldizkariak subentzioak jasotzeko eskubidea baldin badute, guk zergatik ez?

Egunkaria, 1991-VI-22

Alderdi abertzale guztiak laguntza emateko borondatea agertu izanak euskal kulturaren alorrean lor daitekeen adostasunik zabalena lortzeko gai garela erakusten du. Hastapenetan zenbaitek guri buruz plazaratu zituen mamu interesatuak erabat baztertuta daude gaur egun.

Egunkaria, 1992-I-31



Dirulaguntzarik eman ez eta publizitate instituzionala ukatu ondoren, bideragarritasuna zailantzan jartzea... Askoz ere EGUNKARIA hobeagoa eskainiko genieke euskarari eta euskaldunoi, laguntzak izanez gero eta publizitate instituzionala blokeatuko ez balitz!

Egunkaria, 1992-III-22